

Topalekua

85 zk. 2014ko apirila

abril 2014 - n.º 85

1. orr.: *Gizarte-Kontseiluak onartu du UPV/EHU-k Biocruces Osasun-Ikerketarako Institutuan parte har dezan*

2. orr.: *Ministerioak unibertsitatei eta Gizarte Segurantzari buruzko datuak erkatuko ditu, enplegarritasun-mapa bat sortzeko*

3. orr.: *Munduko zientzia-mapa, 15 milioi txosten zientifikoren datuz egina / UPV/EHU-k MOOC ikastaroak eskainiko ditu*

4. orr.: *Gero eta profesional aditu gehiago beharko dira / Finantza- eta adituek ekitate handiagoa eskatzen dute famliek ordaintzen duten ikasketakostuen kopurua ezartzerakoan*

Kontseiluak iraunkortasun-arauak eta ikasketa osagarrien 7 ikastaroren matrikula-prezioak ere onartu zituen

GIZARTE-KONTSEILUAK ONARTU DU UPV/EHU-k BIOCRUCES OSASUN-IKERKETARAKO INSTITUTUAN PARTE HAR DEZAN

Martxoaren 26an Bilbon egin zuen bileran Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak onartu zuen Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak Biocruces Osasun Ikerketarako Institutuan parte har dezan; hori horrela, UPV/EHU Institutuko bazkide estrategikoa izango da. Horrez gain, Kontseiluak onartu zituen UPV/EHUko gradu-ikasketetan iraunkortasun-arauen aldaketa eta 2014-2015ean ematekoak diren ikasketa osagarrien zazpi ikastaroren matrikula-prezioak.

Kontseiluak onartu zuen UPV/EHUk «Biocruces Osasun Ikerketarako Institutua»n parte har dezan; UPV/EHUk nortasun juridikoa emango dio institutuari. Helburua, unibertsitate-lankidetzara arautzen duen hitzarmenaren arabera, hauxe da: «osasun-zientzietako ikerketa sustatzea, ikerketa-unitateak elkarrekin garatuz eta erabiliz; edo ikerketa-institutuak eratzen baldin badira, erakunde bietako giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera onena egitea». Beraz, Biocruces Institutuko bazkide estrategikoa izango da Unibertsitatea. Haren parte-hartzea ikerketataldeen bitartez eta Ikerketa Errektoreordetzaren mendeko zerbitzuen bitartez gauzatuko da.

Iraunkortasun-arauak

Iraunkortasun-arau berriek, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak proposatuta eta Kontseiluak onartuta, aurreko araudiaren bi alderdi azaldu eta tipifikatzen dituzte, zehazki, honako hauek: batetik, sartu berri diren ikasleek zein egoeratan egin ahal duten matrikula partziala eta, bestetik, ebaluazio-deialdiei uko egiteko prozedura. Honako hau erabaki da:

- Ikasleek sei deialdi izango dituzte, irakasgai bakoitza gainditzeko.
- Ikasleek deialdi bati uko egiten badiote, deialdi hori ez da zenbatuko.
- Irakasgaiari buruzko irakaskuntza-gidan azalduko da deialdiari uko egiteko prozedura.
- Bosgarren eta seigarren deialdietan edo ezohiko deialdian proba ebaluatzen osatuko den epaimahaiko irakasleek, ahal denean, lehenengo aldiz ebaluatuko dute ikasle hori.
- Sartu berri diren ikasleek irakasgai guztietan derrigorrez matrikulatu behar duten arren, egoera zehatz batzuetan (degaituak, adin txikikoak edo mendeko pertsonak zaintzeko ardura dutenak, kirolariak, langileak, etab.), ezarritako epeak beteta, “dedikazio partziala” eskatu ahal izango dute.
- Arau berriak 2014-2015 ikasturtetik aurrerako gradu-ikasketetan aplikatuko dira.

MINISTERIOAK UNIBERTSITATEEI ETA GIZARTE SEGURANTZARI BURUZKO DATUAK ERKATUKO DITU, ENPLEGAGARRITASUN-MAPA BAT SORTZEKO

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Espainiako unibertsitate-sistemaren eta Gizarte Segurantzaren datuak batera erabili nahi ditu, unibertsitateko ikasleen enplegagarritasun-mapa egiteko. Mapa horrek erakutsiko du lan-munduan zeintzuk diren eskaera handiena duten ikasketak, eta ikasleei lagunduko die unibertsitate-ibilbidea aukeratzeko. Datos y cifras del Sistema Universitario Español txostenak, Federico Morán unibertsitateetako idazkari nagusiak aurkeztu duenak, dionaren arabera, gaur egun, unibertsitate-tituludunen %48k baino ez dauka bere prestakuntza akademikoaren araberrako lanpostu bat; eta %40k ezin izan du bere unibertsitateko-ikasketekin bat datorren lanpostu bat lortu.

Gizarte Segurantzaren datuak

Txosten horrek unibertsitate-ikasleen laneratzeari buruzko oinarritzko adierazleak kontuan hartu ditu; eta horixe izan da aurtengo alderdi berri nagusia. Gizarte Segurantzak eman dituen lan-bizitzaren lagin jarraituetatik atera dituzte datuok. Hona hemen ondorioak:

- Biztanle guztien **langabezia-tasa** 2007an %8,3 izan zen eta 2012an %25. Goi-mailako ikasketak (doktorretza-ikasketak izan ezik) dituzten biztanleen langabezia-tasaren hazkundera, ordea, txikiagoa izan da: 2007an %5,4 eta 2012an %15,2.
- **Gizarte Segurantzaren afiliatuak:** arteetako eta giza zientzietako eta zientzietako tituludun berriek dituzte afiliazio-tasa txikiak (batez bestekotik beherakoak dira): %40,1 eta %47,9, hurrenez hurren (2005-2006 aldiko taldeak aztertuta). Hala eta guztiz ere, zientzietan graduatu direnen tasa nabarmen hobetzen da gradua bukatu eta hiru eta bost urte geroago, ia batez bestekotik gora iristen da. Bestalde, gizarte-zientzien eta zientzia juridikoen ikasketak bukatzen dituztenek batez bestekotik gorako afiliazio-tasak dituzte lehenengo urtean, baina denbora igaro ahala, tasa erlatiboak okerrera egiten du, eta bost urte geroago batez bestekotik behera iristen da. Osasun-zientzietako tituludunei dagokienez, haien egoerak onera egiten du, urteak pasa ahala.
- Gizarte Segurantzako afiliatuen artean, **soldatapekoen ehunekoa** ia ez da aldatzen urteetan zehar, eta %92-94 ingurukoa da. Autonomoen ehunekoa oso txikia da, zehatzago esanda, %6 eta %8 bitartekoa. Horrek agerian uzten du espainiar unibertsitate-ikasle gutxiak aukeratzeko duela beren kasa lan egitea edo ekintzaile izatea.

- **Lan-mota:** ikasketak bukatu eta urtebete geroago, tituludunen %48,1ek lan egiten du unibertsitate-titulua eskatzen duen lanpostu batean; %23,5ek du maila ertaineko espezialitatea eskatzen duten lanpostu bat; eta %28,4k du espezialitate-maila txikia eskatzen duten lanpostu bat. Hori horrela, tituludunen ia erdiak lanean ari dira beren ikasketekin bat datorren lanpostu batean. Dena den, urte batzuk igaro ondoren, egoerak hobera egin du, honako datu hauek erakusten duten bezala: 2005-2006 aldiko taldea aztertuta, %60,4k unibertsitate-titulua eskatzen duen lanpostu bat dauka, eta %16,8k jarraitzen du eskuzkoak diren eta espezialitate-maila txikia eskatzen duten lanpostuetan.
- **Kotizazio-oinarria:** ikasketak bukatu berri dituzten tituludunen %49k, gradua bukatu eta urtebete pasa ondoren, 1.500 eurotik beherako kotizazio-oinarria du; sei urte igaro ondoren, tarte horretakoek %25 osatzen dute.
- **Kontratu-mota:** 2005-2006 aldiko taldeari dagokionez, gradua bukatu eta urtebetea pasa ondoren, %41ek mugagabeko eta lanaldi osoko kontratua du. Gizarte zientzien, merkataritza-heziketaren, zuzenbidearen eta zientzien arloek dute mugagabeko kontratu-kopuru handiena. Arteen eta giza zientzien arloetan jaso da mugagabeko eta lanaldi osoko kontratu-kopururik txikiena. Bost edo sei urte geroago, egoerak hobekuntza txikia izan du: mugagabeko eta lanaldi osoko kontratua dutenen ehunekoa 15 puntu egin du gora, %56a iritsi arte. Horrez gain, aldi baterako kontratuen kopurua, ordea, nabarmen murriztu da: ikasketak bukatu berri direnen %51,2tik behera %35,7ra.
- **Mugikortasuna:** lau unibertsitate-ikasletatik hiruk ikasketak egin dituzten autonomia-erkidego berean lan egiten dute.

Euskal Autonomia Erkidegoak duela zenbait urtetik jaso ditu enplegagarritasun-datu guztiak, Tituludunen Lan-txertaketari buruzko Inkestaren bitartez. Inkesta hori 1999an abiarazi zen, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren ekimenez. 10 unibertsitate-promoziori dagozkion datuak oraindik ezin izan dira Gizarte Segurantzako afiliatuei buruzko erregistroek ematen dituzten datuekin erkatu. Hori egitea posible izango balitz, askoz zehatzagoa izango litzateke informazioa; eta informazio hori giltzarria da ikasleei ikasketak aukeratzeko laguntzeko, bai eta aginte akademikoari eta politikoei goi-mailako heziketari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko ere.

(1. orritik dator)

Ikasketa osagarriari dagokienez, Gizarte Kontseiluak zazpi ikastaroren matrikula-prezioak onartu ditu. Hona hemen ikastarook:


- «Gorputzaren eta artearen bidezko terapiak» (2. aldia); 800,00 € (80,00 € kreditu bakoitzeko; 10 kreditu).
- «Ikaskuntza Digitalerako Egoera Pedagogiko Berriak: PLE's, MOOC's eta eduki digitalaren sormena»; 100,50 € (33,50 € kreditu bakoitzeko; 3 kreditu).
- «Iraunkortasuna, ikuspegi globala»; 700,00 € (129,63 € kreditu bakoitzeko; 5,4 kreditu).
- «Kapital-zuritzaren prebentzioa»; 260,01 € (123,81 € kreditu bakoitzeko; 2,1 kreditu).
- «Ibai eta hezeguneen bioingeniaritza, birgaitzea eta leheneratzea»; 180,00 € (60,00 € kreditu bakoitzeko; 3 kreditu).

- «Iraunkortasuna eta bizi kalitatea»; 170,00 € (35,00 € kreditu bakoitzeko; 4 kreditu).
- «Gestio jasangarriko ereduak ezartzean izandako esperientzia»; 175,00 € (35,00 € kreditu bakoitzeko; 5 kreditu).

Azkenik, osoko bilkurak bere oniritzia eman zien Gizarte Kontseiluaren 2013ko aurrekontuari eta UPV/EHUren aurrekontu-aldaketa batzuei. Horrekin batera, eta bilera berean, Joana Arambalza Confebask konfederazioko ordezkari gisa hasi zen Gizarte Kontseiluan, Juan Antonio Sánchez Corcheroren ordezkari; eta Iker Martín-ek Jon Ander de Ormaetxea ordeztu zuen, ikasleen ordezkari gisa.

MUNDUKO ZIENTZIA-MAPA, 15 MILIOI TXOSTEN ZIENTIFIKOREN DATUZ EGINA

Granadako Unibertsitateko eta Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseiluko (CSIC) ikertzaileek, SCImago ikerketa-taldeko kideek, hamar urtean zehar munduan egin diren ekoizpen zientifikoen mapa egin dute. Horretarako, estatistika-teknikak eta aldagai anitzeko azterketak erabili dituzte lau urteko jardunean. Lagina 15.000.000 txosten eta artikulu zientifikok osatu dute.



Mapan horiz nabarmenduta dauden eremuetan osasun-eta bioteknologia-zientziei buruzko ikerketa gehienak egiten dira: mota horretako ikerketak Europan eta Estatu Batuetako ekialdean egiten dira, batik bat. Eremu horiek, hain zuzen, tradizio zientifiko eta demokratiko luzeenak dituzte. Beraz, gizarte aurreratuak dira, eta medikuntzaren eta osasun publikoaren garrantzia aintzat hartzen dute, herritarren ongizatea bermatzeko.

Gorri nabarmenduta daude oinarritzko zientzia eta zientzia akademikoa. Berariazko edukiez gain (esaterako, matematikak, fisika edo kimika), akademietan eta ortodoxian oinarrituta dagoen lan egiteko moduari heltzen dio sailkapen horrek. Profil horretan ezin hobeto sartzen dira honako herrialde hauek: Errusia, Txina, Japonia eta orbita bereko beste herrialde batzuk. Herrialde horiek ekoizpen zientifiko ugariak egiten dituzte, sistema piramidalean eta funts sendoetan oinarrituta. Kategoria berean ditugu tradizio zientifiko txikia duten beste eremu batzuk (Brasil, adibidez), «haien zientzia» eratzeke dutenak. Artikulu

horietako asko diziplinen funtsezko arloari buruzkoak dira, aplikazio edo esparru espezifikoagoak jorratu gabe.

Hirugarrenik, berdez irudikatu da ikerketa teknologikoa, eta oso eremu gutxitan egiten da: Europan eta, batez ere, Estatu Batuetan. Estatu Batuetan ikerketa-zentro garrantzitsuak ekialdeko kostaldean dauden arren, teknologiararen bereziki bideratuta dagoen ikerketa zientifikoko zentro handienak mendebaldean daude.

Azkenik, munduko mapan gailentzen den kolorea urdina da, eta kolore horrek adierazten du leku horietan ekoizpen zientifikorik ez dagoela, edo oso eskasa dela.

Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) zentroari emandako saria

Zientzia-arloan, Ekonomia Ministerioak Severo Ochoa ziurtagiria, hots, ikerketaren bikaintasuna aintzatesteko sari handiena, eman dio Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) zentroari. Severo Ochoa sariak hurrengo lau urteetan milioi bat euro urtero jasotzea dakar. Sariak beste eragile zientifiko, teknologiko eta enpresarial batzuetan aplikatutako matematiketan egindako aurrerapenak transferitzen laguntzea du xede. Horrez gain, zentroko kudeatzaileen taldeari egindako lana aitortzen dio, eta honako hauek ere aintzatesten ditu: nazioarteko zabalkuntza handiko plan estrategikoa; baliabide informatiko eta konputazional egokiak, logaritmo aurreratuak erabiltzeko aukera ematen dutenak; nazioartekoa eta zeharkakoa den taldea; eta ikerketa-lerroen zeharkako plangintza. Horren harira, nabarmentzekoa da BCAM-ek eta Baltogar-ek (turbomakinei buruzko Mungiako enpresa bat) elkarrekin egin duten proiektua. Enpresa hori salbuespen eredugarria da, matematika-zentro bateko talde baten ikerketa-lerroaren erdia finantzatzen duelako.

Ministerioaren hitzetan, «egindako ikerketak nazioartean izan duen garrantziaren aintzatespena da Severo Ochoa saria. Era berean, zentroak datozen lau urteetan garatzeko proposatu duen programak munduaren ikuspegitik zer interesa duen ere aintzat hartu da. Jasotako diruaren zati handi bat ikertzaile gehiago kontratatzeko erabiliko da (eskatutako aurrekontuaren %56, hain zuzen ere)».

UPV/EHU-k MOOC IKASTAROAK ESKAINIKO DITU

UPV/EHU hasiko da MOOC ikastaroak (Massive Online Open Courses) emateko plataformak erabiltzen, eta hauxe izango da lehenengo ikastaroa: «PLE, MOOC y contenido digital educativo/ PLE, MOOC eta hezkuntzarako eduki digitala». Ikastaro hori irakasleak prestatzeko ikastaroa da, eta gatzelaniaz zein euskaraz egin daiteke; gainera, UPV/EHUko irakasleek emango dute. Irakasuntza-mota hori linean egin daiteke, irekia da, bai eta doakoa ere; beraz, urrunetik ikasteko aukera merkea, malgua eta azkarra da. Irakasleek unibertsitate garrantzitsuetako materialak kontsulta ditzakete, eta munduko edozein herrialdetako irakasleekin eta irakasleekin ezagutzak partekatze edo zalantzak galdetzeko aukera dute.

MOOCs en España txostenaren arabera, gaur egun, Estatu unibertsitateen herenek (80 unibertsitatetatik 28) eskaintzen dituzte linean egin daitezkeen doako ikastaro horiek. Txosten horretan jaso da gizartea prestatzeko tipologia berri horren eskaintzaren eta eraginaren azterketa. Txostenak dio MOOC ikastaro-kopuru handiena eskaintzen duen Europako estatua Espainia dela: 111 ikastaro eskaintzen ditu, hain zuzen ere. Atzetik datoz honako herrialde hauek: Erresuma Batua, 65 ikastaro; Alemania, 59; Frantzia, 24; Suitza, 22; Errusia, 21; eta Italia, 20. Kate-drak beste txosten batean aztertuko du egoera hori.

Autonomia-erkidegoei erreparatuta, hauxe da sailkapena: Madril, 42 ikastaro; Valentziako erkidegoa, 20; Murtzia,

13; Kantabria, 12; Katalunia, 9; Nafarroa, 6; Gaztela eta Leon eta Andaluzia 4; Kanariar Uharteak, 2; Euskal Autonomia Erkidegoa eta Aragoi, 1. Analisiaren arabera, MOOC ikastaro gehiago eskaintzen dira sistema publikoan, pribatua baino: Estatuan dauden 50 ikastegi publikoetako 20k (%40) MOOC ikastaroren bat eskaintzen dute; aitzitik, 30 ikastegi pribatuak 8k (%27) baino ez dute mota horretako ikastarorik eskaintzen.

Ikastaro horiek egiteko gehien erabiltzen den plataforma Miriada X da, Estatuan Coursera eta EdX erakunde anglosaxoiak oraindik oso ezagunak ez direlako. Bestalde, erakunde batzuek beren plataformak sortzeko joera dute, «heziketa-eskaintza» zentralizatzeko asmoz, zenbait ikastaro bilduta. Horren adibide dira, besteak beste, honako unibertsitate hauek: Espainiako Urruneko Hezkuntza Unibertsitate Nazionala (UNED), Granadako Unibertsitatea (UGR), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta Murtziako San Antonio Unibertsitate Katolikoa (UCAM).

MOOC ikastaro bat lehenengo aldiz eman zen Estatu Batuetako unibertsitate batean: Stanford Unibertsitatean. Inteligentzia artifizialari buruzko ikastaroa izan zen, eta 120.000 ikasle baino gehiagok eman zuten izena. Massachusettsko Teknologia Institutuak (MIT) ere ikastaro ofizialen materialak kontsultatzeko doako sarrera libre eskaini zuen 2001ean. 2009an argitaratuta zituen gradu-ikastaroen eta graduondoko ikastaroen kopurua 1.900era iritsi zen.

GERO ETA PROFESIONAL ADITU GEHIAGO BEHARKO DIRA


Datozen urteetan, gero eta profesional aditu gehiago beharko dira; horregatik, enpresek zailtasunak izango dituzte, beharrezko langile adituen kopurua bermatuta izateko. Hori da Global Talent 2021 txostenak, Oxford Economics-ek eginak, aditzera eman duena. Txosten hori, hain zuzen, Giza Baliabideen sektorean egiten diren txosten entzutetsu-entzariko bat da. Herrialde gutxi batzuek baino ezin izango diote profesionalen eskaeraren eta profesionalen eskaintzaren arteko orekari eutsi. Herrialde horiek, besteak beste, Txina, Argentina eta Mexiko izango dira. Bestalde, beste herrialde batzuetan, hala nola Italian, Alemanian, Frantzian eta Espainian, langile adituen eskaintza baino handiagoa izango da langile adituen eskaera, lanpostuak betetzeko.

Kontrako egoera India, Kolonbia edo Qatar izango dira, beste nazio batzuekin batera; hau da, profesional adituen eskaintzak herrialdeko ekonomia kudeatzeko gai dena soberan gaudituko du. Hori dela eta, langile-hornitzaile bihurtuko dira, langile adituak behar dituzten herrial-

deetarako. Global Talent 2021 txostenak langile adituen mugikortasuna aukera bat izan daitekeela onartzen duen arren, halaber azpimarratzen du profesionalak inportatzea baino askoz onuragarriagoa dela herrialdeentzat bertako herritarrek prestatzea. Izan ere, lanaren ikuspegitik erakargarrienak diren merkatuei dagokienez, profesionalen inportazio hutsa aurrera egiteko behin-behineko aukeratzat soilik hartzen da.

Txostenaren arabera, Espainiako Estatua batez besteko egoeran izango da. 2021. urteari begira, Espainiako Estatua –beste herrialde batzuk bezala, hala nola Suedia, Holanda, Austria edo Suitza– ez da ez talentua esportatzen duten herrialdeetako bat izango, ezta biztanle zaharren kopuru handiena izateagatik beste merkatu batzuetara langile aditu gazteen bila joan behar izango dutenetako bat ere. Europako esparruan, herrialde batzuek (esaterako, Italia edo Grezia), talentu-ezaren ondorioz, kanpoko ekonomietan bilatu beharko dute talentua.

TALENTU-ESKAITZAREN ETA TALENTU-ESKAERAREN ARTEKO DESOREKA 2021ean



Profesional adituak bilatzeari dagokionez, ikerlana osatzeko egin diren inkestak arabera, enpresariak argi eta garbi adierazi dute zer indar aurkitu nahi duten kontratatuko dituzten langileengan. Besteak beste, talentu berriei honako oinarritzko ezaugarri hauek eskatzen dizkiete: eza- gutza digitalak izatea, egoera anitzetara eta aldakorrei ego-


kitzeko gaitasuna, taldean sortzeko gaitasuna eta taldeko brainstorming-ea trebeak izatea. Langileei dagokienez, Global Talent 2021 txostenaren datuek diote hauek direla goi-mailako profesionalak gehien baloratzen dituzten trebetasunak: negozioa hazi araztea, kostuak kudeatzea, konfiantza sortzea eta liderrak garatzea.

FINANTZAKETAN ADITUEK EKITATE HANDIAGOA ESKATZEN DUTE FAMILIEK ORDAINITZEN DUTEN IKASKETA-KOSTUEN KOPURUA EZARTZERAKOAN

2008 eta 2013 urte bitartean, unibertsitateen finantzaketa publikoaren %18 murriztu da. Bestalde, unibertsitate- ikasketen prezio publikoak era asimetrikoan handitu dira autonomia erkidegoetan. Crisis fiscal, finanzas universitarias y equidad contributiva txostenak, Jaengo Unibertsitateko eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko adituek eginak, aipatzen du etorkizunean familia-errenta zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izan beharko zuela familiak ordaintzen duen ikasketen zatiak. Proposamena ekitatean oinarritutako finantzaketa globalaren esparruan egin da.

Horretarako, azterlan horretan unibertsitateko ikasketak finantzatzeko proposamen bat egin dute. Proposamen horrek aurrerapen- eta iraunkortasun-arauak hartzen ditu oinarri, eta honako hauetan izango luke eragina: ikasleengan, bekaadunengan, diru-sarrera txikiak dituzten familiei zuzendutako laguntzetan eta familia-errenten arabera prezio publikoen ezartzean. Esparru horretan, txostenaren egileek ikaslearen familiaren gabezia ekonomikoari laguntzeko beka-sistema baten alde egiten dute, aukera berdinarak eta ikaslearen iraunkortasuna bermatuko dituelakoan.

PARTE-HARTZEAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA-ERAGILEEN ARABERA GASTU PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN EKARPENA HEZIKETA-ERAKUNDEETAN (2010)



Iturria: Education at an Glance. OECD 2013. B 2.13 taula